



MERKATARITZAKO SALTOKIAK MODERNIZATZEKO 2019ko LAGUNTZA-PROGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

Xedea

EAEko merkataritzako establezimenduen modernizazioa sustatzea.

Onuradunak

Jarduera nagusia **merkataritza** duten enpresa ertain eta txikiak, hiru urtez gutxienez horretan dihardutelarik, eta, eskabidea aurkezteko orduan, **jarduera ekonomikoaren gaineko zergan altan** daudenak.

Diruz lagun daitezkeen proiektuak

A) Altzariak, ekipamenduak, lokala eta kanpoko nahiz barruko elementuak eraberritzea eta eguneratzea.

Ez da argiak aldatzea diruz lagunduko, baldin eta, hori ez badago elektrizitate-instalazioa berritzeko inbertsioaren barruan integraturik. Ez da inolaz ere merkataritza-lokala ezta garrariorako elementua erostea diruz lagunduko. Leasing edo renting bidez ekipamendua lortzea ere ez da diruz lagunduko.

Inbertsioa gutxienez 4.000 eurokoa izango da.

B) Salgaien balantza elektronikoak, informatika-ekipoak, aplikazioak eta hauen osagarriak, beti merkataritza-prozesuen barruan integraturik badaude edo enpresa-kudeaketarako badira. Halaber, **lineako salmentadun webguneak sortu eta ezartzeko badira eta merkataritzako establezimenduko webgunea gailu mugikorretara egokitzeko badira.**

Informatika-ekipamenduen inbertsioa mugatuko da diruz laguntzera gehienez informatika-ekipamendu bat merkataritzako establezimenduko baita periferiko mota desberdin bat ere.

Ez dira, inolaz ere, diruz lagunduko ez sakelako telefonoak ezta osasun zerbitzuetarako edo profesionalentzako makineria zehatzerako ere.

Inbertsioa gutxienez 900 eurokoa izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Itzuli beharrik gabe ematen den kopurua diruz lagun daitezkeen inbertsioaren **% 16koa da.**

Establezimenduko eta urteko, emandako gehieneko zenbatekoa 9.000 euro izango da.

Aurreko laguntzen portzentajeari hauxe gehitu beharko zaio:

- % 2 gehiago, baldin eta, eskaera egunean saltokia Erregistroan inskribatutako merkataritza-elkarteren bateko kide bada.

- % 2 gehiago, establezimenduak UNE 175001-1 ziurtagiria, Erdi mailako Bikaintasun ziurtagiria izanez gero edo Saltokitik Enpresara programan parte hartzen badu.

- % 2 gehiago, inbertsioa kudeaketa-sofwarerako edota lineako salmentadun webgunerako erabiltzen bada.

- % 2 gehiago, saltokiaren nagusiak edo gutxienez enplegatu batek hezkuntza arautuko merkataritza arloko tituluren bat (marketina, salmentak, erosketak...) duela egiaztatzen bada.

- % 3 gehiago, enpresaren plantilla erdiek gutxienez lan-kontratu mugagabea dutela egiaztatzen bada.

- % 3 gehiago, saltokiak Berdintasun Plana edo Kontziliazio Plana badu. Halaber, Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko Erakunde Laguntzaile baldin bada.

- % 2 gehiago, establezimendua bere kargu hartu duen enpresariak "Berriz Enpresa" enpresa-transmisio programan parte hartzen badu.

- % 2 gehiago, Kontsumobideko Arbitraje-Sistemari atxikita badago.

- % 2 gehiago, jarduera garatzeko berezitasunen bat duen inbertsioa edo ekimen berritzaile bat egiten bada.

Dirulaguntzaren portzentajea ezin izango da, inolaz ere, onartutako inbertsio guttizkoaren % 30etik gora izan.

Inbertsioaren betebeharrak

Diruz lagunduko dira **2018ko uztailaren 3tik egindako inbertsioak eskaerak egiteko epea bukatu arte**. Elementu berriak izan behar dira; enpresan gutxienez bi urtez egon behar dute; hirugarrenei ezin zaizkie laga; enpresak berak eginak ezin dira izan; eta Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute lokalizaturik.

Eskaerak egiteko epea

2019ko ekainaren 30era arte.

Portugaleteko Merkataritzako Bulego Teknikoa

Portugaleteko Udala

Merkataritza Saila
Gizarte-etxea, 4. solairua.
48920 Portugalete - Bizkaia

94 472 93 53 /Fax 94 472 92 94

comercio@portugalete.org

Jendaurreko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara